

KOSTUEN EGITURA

Proiektua aurrera eramán ahal izateko balioa sortzeko eta entregatzeko kostuak, bezeroarekiko harremanen mantentze-lanen kostuak edo kostu bat duten diru-sarreren sorrera zein diren jakin behar dira. Lanaren zehar aurkituko ditugun kostuak bitan banatzen dira, kostu finkoak eta kostu aldakorrak.

Kostu finkoak, ekoizpena aldatuta ere konstantean mantentzen diren kostuak direla kontuan hartuta, hauek dira bertan aurkitu ditugun kostuak: web orrialdearen kostua, telefono mugikorra eta ordenagailua.

Web orrialdearen kasuan, honen erabilera oso garrantzitsua izango da bertan gure proiektuaren inguruko informazioa egongo delako eskuragarri pertsona guztiendako. Gainera bezeroekin harremanak izateko lagungarria izango da, beraz indar handia izango duenez proiektuan, kalitate oneko bat erabili beharko dugu. Ordaintzekoak diren web orrialde desberdinak begiratu ondoren, urtean 25€-ko kostua duen bat aukeratu dugu, non honen kostua ez dagoen ekoizpenaren menpe. Ondoren webaren mantenua eramango duen pertsona bat izango dugu non hilean 150€ ordainduko diogun.

Teknologia ere oso garrantzitsua izango da web orrialdea aurrera eramateko, posta elektronikoa erabiltzeko, bezeroekin komunikatzeko... Horregatik enpresako mugikor bat eta gutxienez ordenagailu bat erosi beharko dira lana erraztasun handiagoarekin egin ahal izateko.

Mugikorra erosteak 150€ kostatzen du eta honen barruan, honentzako konpainia ordaindu beharko da non Interneta eta mugikorraren zenbakia ordaindu beharko diren. Horretarako "euskaltel" konpainiaren tarifa bat ordaindu beharko genuke hilean 28.93€koa, dei kopuru mugagabea eta internetan izango genukeena eskuragarri. Ordenagailuaren kasuan, 400€-ko prezioa duen bat erosi dugu. Ondorioz, mugikorraren eta ordenagailuen kostua ere ez da ekoizpen aldaketan menpe egongo.

Azkenengo kostu finkoa bilerak beste herri batzuetan egiten direneko bidaiak ordaintzeko izango da, hau da, autoaren gasolinaren kostua. Kasu honetan autoa hasiera batean kide bakoitzarena izango zen eta bakarrik gasolina ordaindu beharko zen, non litro bakoitzetik 1,164€ ordaindu beharko ziren.

Kostu aldakorretan berriz publizitatea daukagu. Proiektuaren inguruko publizitatea egiteko modu desberdinak daude pentsatuta, non kanalak atalean hobeto azaltzen den bakoitzaren erabileraren zergatia. Sare sozial batzuen kasuan publizitatea egitea dohainekoa da.

Baina beste kasu batzuetan, liburuxka eta telebistan esaterako, hauek egiteko beste enpresa batzuekin jarri behar gara harremanetan eta haiekin prezioa negoziatzeko aukera dago. Telebistan (eitb eta etb) astelehenetik ostiralera goizetan agertzeko "tarhiben" publizitatea 400€-ko kostua dauka eta asteburu goizean 200€-ko kostua.

Kostu hau aldakorra dela esaten dugu, ekoizpen kopuru txikia badago publizitate gehiago egin beharko delako eta alderantziz, hau da, ekoizpenaren arabera publizitate gehiago edo gutxiago egingo da eta ondorioz honen kostua aldatu egingo da. Gainera gure proiektuan lau kide gaudenez bakoitzaren soldata ere erabaki behar da, kasu honetan,

proiektua hasterakoan bakoitzak diru kopuru bat jarri beharko du eta horren arabera proportzioan bakoitzak gehiago edo gutxiago ordainduko du.